



Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

2016ko abenduaren 24a

Gabon.

Urtero bezala, Gabon zoriontsuak opa nahi dizkizuet, Erreginarekin eta gure alaba Leonor eta Sofíarekin batera, eta 2017 guztiontzako urte hobea izan dadila espero dugu. Gau berezi honetan, duela gutxi gure herrialdean uholdeen eragina bizi izan duten familiei bereziki, gogoan ditugula jakinarazi nahi diet.

Eguberri-egunak jaiotza esan nahi du, eta jaiotzen dena poztasunez ospatzea etorkizunean fedea izatea da. Honelako uneak bizi ditugunean, elkarbizitzan sortzen diren sentimendu pertsonal eta kolektiboek, hala nola, maitasunak, adiskidetasunak eta senidetasunak, guztiok partekatzen dugun ondare komuna gogorarazten digute. Denok zaindu eta babestu behar dugun ondarea da, hori baita daukagun onena eta gure izaeraren alderik onena; hori da bat egiten gaituen guztiaren alderdirik onena.

Ohitura den bezala, gure orainari eta etorkizunari buruzko zenbait gogoeta partekatu nahi ditut zuekin. Bizi izan dugun guztia hartu, batez ere, 2016 honetan bizitakoa, eta aurrera egiten hobekien lagunduko digun hori nabarmendu nahi dut.

Betidanik esan da bizitzako unerik zailenak aukerarik onena ere badirela gure barne-indarra azalertzeko, gure benetako izaera eta dimentsioa ezagutzeko. Urte honetan zehar, gure herrialdeko hainbat tokitan izan naiz. Eta zera aitortu behar dizuet: gure herri eta hirietatik egindako ibilbide horretan, zailtasunak eta arazoak dituzten herritarrak ikusi ditudala; baina, horrez gain, lan gogorra, zintzoa eta neketsua ere ikusi dudala; gaitasun eta talentu izugarria; eta, batez ere, ausardia eta aurrera egiteko gogoia.

Familiak gure gizartean duen garrantzia egiaztatu dut berriro ere, izan ere, pertsona askok familiaren laguntzari esker gainditu dituzte egoerarik latzenak.

Langile eta profesional ugari ezagutu ditut, gizonak zein emakumeak, beren ahalegin sendoarekin urte luze eta zailetan beren familia, bizitza eta lanbidea aurrera atera dituztenak, ahuldu edo etsi gabe, duintasunez eta kemenez.

Horrez gain, lanpostuak sortu edo babesteko xedearekin arriskuak beren gain hartu dituzten herritar asko ere ezagutu ditut, edota ilusioz eta nekez egindako lana suntsituta ikusita ere berriro altxatu eta lanari ekitea erabaki duten pertsona adoretuak.

Halaber, jarrera solidario ugari ere aipa ditzaket. Zuetako asko eskuzabaltasun handikoak zarete, zuen ezagutzak, denbora, ahalegina eta, batez ere, zuen bihotza jartzen baituzue besteen eskura, edonori laguntza eskaintzeko; edozein

larrialdiren aurrean erreakzionatzen duzue, eta argi uzten duzue behar den guztietan, adorea behar denean edo lagun baten premia dagoenean, biztanle espainiar bat dagoela laguntza emateko prest, gure herrialdearen handitasuna eta arima sakona islatuz.

Bestalde, zerbitzari publikoek egiten duten lanaren lekuko ere banaiz. Komunitateari zerbitzua emateko bokazio argia dute, gure askatasunak bermatuz, ospitaleetan arreta emanaz edo gure seme-alabak heziz; asko dira Espainian bertan eta hemendik kanpo gure segurtasunaren alde borrokatzen duten, gure baloreak defendatzen dituzten, zientzian ekarpenak egiten dituzten eta kultura aberasten duten herrikideak. Horiek guztiek gure herrialdearen irudia osatzen dute. Haiei esker funtzionatzen du gure Estatuak eta ospa ditzakegu gaurkoa bezalako egun bereziak.

Horrek guztiak harro sentiarazi behar gaitu; eta itxaropena bizirik mantentzeko arrazoia ere bada, jarrera, uste eta balore horiei tinko eusten dien gizarteak ez baitio beldurrik izango etorkizunari. Gure memoria kolektiboak ohorezko tokia gordeko dio pairamenez tindatutako garai neketsu honi; izan ere, eskuzabaltasuna eta oztopoak gainditzeko kemena ere agerikoak dira.

Baina etorkizunera begiratu behar dugu gure herrialdea eta Europa eraikitzeko. Egunero, pausoz pauso, jarrera positiboa lagun, ahaleginak egin behar ditugu oparotasuna eta ongizatea elkarbizitza itxaropentsuaren oinarriak izan daitezen. Hori dela eta, gai zehatz batzuei buruz hitz egin nahi dut gaur:

Egia da krisialdiak sakrifizio handiak egitea eskatu duela. Hala ere, suspertzeko itxaropenarekin bizi gara orain, dagoeneko egoera hobetzen hasi da eta. Guztiok nahi dugu susperraldia egonkortzea, kalitatezko lanpostu gehiago sortu ahal izatea, krisialdiak eragindako desberdinkeriak desagerraraztea eta, oro har, kohesio soziala sendotzea, gure gizartea egonkortzen eta oreka bermatzen laguntzen baitu horrek.

Zentzu horretan, ezinbestekoa da familia askok lehen zuten bizi-maila berreskuratzea, gazteek etorkizunari begira aukerak, ilusioa eta konfiantza izatea; eta pertsonarik kaltetuenak edo ahulenak, batik bat, ziur jakin dezatela ez direla albo batera geratuko Espainiak XXI. mendean ibiliko duen bidean.

Bestalde, ondo ezagutzen duzuen egoera politiko konplexua gainditu dugu. Orain, gizarteak baretasuna berreskuratu behar du, herritarrek aukera izan dezaten beren bizitza proiektuei lasaitasunez ekiteko. Halaber, etorkizunari begira ezinbestekoa da talde politikoek haien artean hitz egitea eta akordioak lortzea oinarrizko adostasunak babesteko eta sustatzeko, eta ondorioz, gure gizarteak hobeto funtzionatzeko.

Berriro azpimarratu nahi dut denon ardura dela gure elkarbizitza aldi oro zaintzea eta hobetzea. Eta elkarbizitzak errespetua eskatzen du beti. Errespetua eta ardura besteekiko, pertsona nagusiekiko, gizon eta emakumeen artean, ikastetxeetan, lanean; baita partekatzen dugun eta eusten gaituen ingurumenarekiko. Errespetua eta ardura ere bai gure pentsaerarekin bat ez datozen ideiak dituzten pertsonetikiko. Intolerantzia eta bazterketa, besteen ideiei uko egitea edo beren iritziak mespretxatzea, ezin dira onartu gaurko Espainian.

Halaber, ez dira onargarriak espainiar guztiek elkarbizitza honetan parte hartzeko duten eskubidea ukatzen edo mespretxatzen duten jarrerak. Gure demokrazia eta askatasuna bermatzeko balio duten arauak haustean, lehenik, tentsioak eta ezertarako balio ez duten istiluak eragiten dira, eta bigarrenik, gizartea ahultzen da, bai moralki bai materialki.

Aurrerapenak, modernizazioak eta ongizateak elkarbizitza demokratikoa eskatzen dutelako. Horretarako, ezinbestekoa den Legea errespetatzea eta, suntsitzeko helburuaren ordean, eraikitzeke borondate irmo eta leiala izatea; handitzeko, eta ez txikitzeke xedearekin jardutea; sendotzeke, ez ahultzeke.

Orain pentsatu behar dugu zer nolako Espainia nahi dugun datozen hamarkadetarako, zein egoera eskainiko dien gaur egungo gazteei, eta irmotasunez eraiki behar dugu. Eta horretarako, ahalegin guztiak zuzendu behar ditugu gure ingurua aztertzerako, mundua zein bide hartzen ari den ikusteko.

Mundu zalantzarria da, erronka handiak dituena arlo politiko eta sozialean, garapenean eta segurtasunean, besteak beste. Gaur, arreta berezia jarri nahi dut aurrerapen teknologikoetan. Izan ere, maila globalean, gero eta garrantzia handiagoa dute gure eguneroko bizitzan.

Gure artean komunikatzeko eta harremanetan jartzeko modua erabat aldatu da; gai bati buruzko iritzia bat izateko eta erabakiak hartzeko behar dugun informazioa bide berrietatik heltzen zaigu; errealitate berri hori enpresetan, lantegietan eta industrietan finkatu da, eta ekoizpen-prozesuak eta lanpostuak eraldatu ditu, orain arte ezagutzen genuenarekin alderatuta. Ikastetxeak, unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak ere eraldatzen hasi da. Gizateriaren historian, ez dira inoiz honelako aldaketa garrantzitsuak hain denbora-tarte laburrean lortu.

Gaur egun, badakigu iraultza teknologikoa baino askoz gehiago dela, hori baino sakonagoa dela. Mugak, gizarteak, belaunaldiak eta sinesmenak gainditzen dituen eredu berria da.

Testuinguru horretan, argi dago errealitate geldiezin horretara egokitu behar garela. Gure gaitasunak ahal bezain beste garatu behar ditugu zientzian, ekonomian, kulturean, industrian eta segurtasunaren arloan arrakastatsuak izateko, betiere, identifikatzen eta definitzen gaituzten giza baloreak ahaztu gabe. Ezin gara zain egon errealitate berri hori nahitaez gure inguruan ezarri arte. Herrialde bateratu gisa, eman diezaiozun bultzada sendoa aldaketari, garai berriari aurrea hartzeko eta horren protagonistak izateko.

Zeregin horretan funtsezkoa da hezkuntza, eta hala izango da beti. Gure ezagutzak etengabe finkatu eta eguneratuko dituen hezkuntza behar dugu, beste arlo batzuk ere aintzat hartzen dituen, hala nola, hizkuntzak eta kultura, gizalegea eta baloreak. Gure gazteak mundu berri bateko biztanleak izateko prestatzeko hezkuntza, askeagoak eta trebeagoak izan daitezten, pertsona nagusien eskarmentua aprobetxatuz. Ikerketa, berrikuntza, sormena eta jarrera ekintzailea sustatzen dituen hezkuntza, etorkizuneko gizarteak horiek guztiak eskatzen dituelako, eta gizarte hori dagoeneko hemen dugulako.

Ez zaituztet gehiago entretenitu nahi, familiartean ospatzeko gaua da eta. Baina agurtu baino lehen, aitortu nahi dizuet Espainia jakitun eta solidarioan sinesten dudala, balore irmoak dituen, ezkortasunetik, ilusio ezetik eta desilusioetatik urrun dagoena. Zailtasunak gainditzeko prest dagoen Espainian sinesten dut, nahiz eta oztopoak handiak izan.

Eta ziur nago zailtasun horiek gaindituko ditugula, ulertu egiten badugu dagoeneko ez garela bizi gure baitan ixteko, baizik eta mundura irekitzeko; argi badaukagu ez dela garaia bata bestearekin eztabaidatzeko eta barne desadostasunak onartzeko, baizik eta bat egiten gaituen horri garrantzia gehiago emateko, aniztasunetik abiatuta eraikitzeko; besoak irekita dituen eta eskua ematen duen Espainian sakontzeko garaia da, etengabe iraganeko gorrotoak aipatu eta zauri itxiak ireki beharrik gabe. Azken finean, arrazoi sendoak ditugu bateratzeko, elkarrekin lan egiteko, gure herrialdeko edozein tokitatik, ilusioz, Espainia hobetzen lagunduko duten ideal eta proiektuekin.

Hala uste dut. Eta uste oso horren ondoren, Eguberri ona opa nahi dizuet denoi, baita zuen familia osoari ere.

Eguberri on / Bon Nadal / Boas festas.
Gabon. Eta urte berri on.